

Diskoak

IKER BARANDIARAN



Puro Infierno.
Vendetta.
Baga-Biga.
Iraupena: 43'05".
11 euro.

Latinoamerika eta Jamaikako ardo gorri onenak

Vendetta Skalariak eta beste taldeetan ibilitako musikari trebatuek osatu zuten eta azken urteotan non-nahi ari dira emanaldi arrakastatsuak eskaintzen; inork ezin ditu gelditu. Bada ska eta rocka ondo nahastuta arrakasta lortutako zenbait talde, baina iruindarrekin gehiago probatu nahi dute, eta bigarren lan honetan koordenadak aldatu dituzte. Kanta askoren oinarria ska, dantza eta tronpetak eta tronboiak piztutako patxanga geldiezin eta kutsakorra den

arren –Bad Manners eta raggamuffia ere ezin ahaztu–, Latinoamerikara gero eta gehiago begiratzen diote (rantxerak, balada latinoak, Kubako malenkonia, Mano Negra...). Ez hori bakarrik, barruan daramaten alderdi punk eta rockeroa ere behin baino gehiagotan azaleratzen dira. Mobida tronpeteroak ez zaituela betetzen? Hitz egin aurretik, jarri arreta...

www.myspace.com/vendettanafarroa

Pello Reparaz - Vendetta

«Baikortasun eta ostia txar fusioa da gurea»

Zer dauka ska musikak non-nahi hain entzuleria fidela eta konexio ona lortzeko?

Baikortasun mezua barruan dakarren estiloa da. Euskal Herrian eta Espainiako Estatuan horrenbeste jotzeak bistan uzten du jendeak mezu horren egarria duela. Irribarre, baikortasun eta ostia txar fusioa da gurea, eta hori transmititzeko ska, rock, punk, latin, reggae eta bihotzak eskatzen digun estilo oro erabiliko dugu.

Musika latinoak eta jamaikarra dira iturri nagusienak?

Serioago jarri nahi badugu eragin punkienak azaleratzen ditugu baina dantzarako Latinoamerikara jotzen dugu. Gorputza mugitzean irriak, besarkadak, ukabilak eta ideiak mugitzen dira. Ez dugu Vendetta mugimendurik gabe ulertzen.

Ska-tik at, badira hit bihur daitezkeen *A muerte*, *Begitara begira* pop-



reggaea eta Manak idatzi nahi izango lukeen *Buonasera*, adibidez.

Begitara Begira eta *Buonasera* bezalako abestiak gure ohiko ardatzetik ateratzen diren abestiak dira, eta benetan berezi ari dira bilakatzen guretzat eta zaleentzat.

“Ez dakart abestirik, ezta poema handirik, bakarrik nire bihotza taupada gogorrean”. Sentimenak dira funtsezkoena?

Planteatu diot neure buruari jen-

deak zer entzun nahi duen. Ikertu ere egin dut. Baina abesti bat idazterakoan, ezin izango dut inoiz jendeak entzun nahi duena oinarritzat hartu. Argi dakartzagu mezuak, sentimenak eta ideiak.

***La Diabla*, *La Familia*, *A muerte*, zuen estetika bera... Mexiko oso presente dago.**

Doinuek, oihuek eta iraultzek batzen gaituzte. Ezin dugu tendentzia hori ukatu eta hemen duzue

Puro Infierno. Hemendik hara, iraultza multikultural eta internazionalista.

***Pasos de acero*. Borrokatu beharra?**

Ostia txarrez idatzi nuen kanta hori eta beste garai batzuetan egin nuen arren, gaur egun idatzia ere izan zitekeen –Errekaldeko genozidio kulturala kasu–. Suaren aurrean, sua. Aupa Kukutza! ■

